



GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Testuak



Gerra Hotza 1945ean Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik Berlingo harresia erori eta 1991ean Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) desegin zen arte luzatu zen garai historikoa da. Superpotentziek gidatutako bi bloke politikotan banatzen da mundua: alde batetik, Ameriketako Estatu Batuak (AEB) eta haien aliatuak (bloke kapitalista) eta, bestetik, Sobietar Batasuna eta herrialde komunistak (bloke komunista). Gerra Hotzaren garaian, haietako bakoitzak bere eragin-eremua babestu eta zabaldu nahi zuen. Bi blokeen arteko tentsioa mundu osoko gatasketan is latu zen: Greziako Gerra Zibila, misilen krisia Kuban, Koreako eta Vietnamgo gerrak...

Gerra Hotza gatazka geopolitikoa izan zen, baina baita ekonomikoa, teknologikoa eta kulturala ere. 1945 eta 1991 artean, bi superpotentziek arlo guztietan lorpenik onenak lortzeko borrokatu zuten.

Garai honetan, mundua gerra nuklear baten mehatxupean bizi izan zen.

1946-1949

Greziako Gerra Zibila

1944an, alemaniarrek Greziatik erretiratu zirenean, bi taldek boterea lortzeko borrokatu zuten: monarkikoak eta komunistak. Komunistak Sobietar Batasunak babestu zituen bitartean, Estatu Batuek monarkikoak babestu zituzten. Sobietar Batasunaren eraginak Grezia eta Turkiako matxinada komunistek Truman doktrinaren formulazioa bultzatu zuten. Gertaera historiko horrek zetozen 40 urteetan bi superpotentzien nazioarteko politika definitu zuen.

1947

Marshall plana

Bigarren Mundu Gerraren ondorioz, Europa osoa hondatuta zegoen. Horregatik sortu zen Estatu Batuetan laguntza eskaintzeko plan bat. Marshall plana, hain zuzen ere. Laguntza teknikoa, administratiboa eta ekonomikoa eman zuen Europako hainbat herrialderen susperraldi ekonomikoa bultzatzeko, Italia eta Alemania barne (gerra garaian etsaiak ziren arren). Laguntza horrekin Estatu Batuek bi helburu zituen: alde batetik, komunismoari eustea eta, bestetik, Estatu Batuen nagusitasuna sustatzea.

1947

Truman doktrina

Truman doktrina 1947ko martxoaren 12an AEBetako Kongresuan egindako hitzaldi batean adierazi zen lehen aldiz. Komunismoari aurre egiteko politika izan zen eta Harry S. Truman presidente estatubatuarrek sustatu zuen. Estatu Batuek laguntza (ekonomikoa eta militarra) eskaini zieten gobernu demokratikoei matxinada komunistei edo Sobietar Batasunetik zetozen presioei aurre egiteko.





GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Testuak



1948-1949

Berlingo blokeoa

1948ko ekainaren 24tik 1949ko maiatzaren 12ra bitartean, Sobietar Batasunak Erresuma Batuekin eta Estatu Batuekin partekatzen zituzten mugak ixtea erabaki zuen, Bigarren Mundu Gerraren amaieran aliatuek okupatutako Alemaniako lurraldean. Erabaki horrek batez ere Berlingo mendebaldeari eragin zion, non mendebaldeko potentziak ezin ziren bere agindupeko sektorerara iritsi, Berlin hiria sobietar eremuan zegoelako. Blokeoa mendebaldeko aliatuek ezarritako diru-erreformari erantzuteko aplikatu zen. AEBk eta Erresuma Batuak hiriaren mendebaldera hornidurak bidali zituzten, legez SESBk baimendu behar zituen hiru aire-korridoreen bidez.

1949

Txinako iraultza

Txinako iraultza 1927an hasi eta 1949an amaitu zen iraultza soziala izan zen. XIX. mendean Txinak atzerriko potentzien esku-hartzea jasan zuen, bai eta herrialdeko biztanleak eskubiderik gabe mantendu zituen lur-jabeen sistema bat ere. Testuinguru horretan sortu zen Alderdi Komunista. 1927an gerra zibil luze hasi zen komunisten eta nazionalisten artean. Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, SESBek babesa eskaini zion Mao Zedong buru zuen alderdi komunistari, eta AEBk bien bitartean nazionalistei. Garaipen komunistak eragin handia izan zuen: Txina estatu sozialistarik handiena bihurtu zen, eta denborarekin Gerra Hotzeko hirugarren indarra.

1949

NATOn sorrera

1949ko apirilaren 4an, 12 herrialdek, horien artean Frantziak, Kanadak eta Estatu Batuek, Ipar Atlantikoko Ituna sinatu zuten mendebaldeko herrialdeen segurtasuna bermatzeko eta Sobietar Batasunaren hedapena neutralizatzeko. 1950ean, Koreako Gerraren ondoren, egitura zibil eta militar iraunkorrez hornitu zen ituna. NATOn egoitza Bruselan (Belgika) dago, eta 2024an Ipar Amerikako eta Europako 32 estatu NATOn parte dira. Itunaren 5. artikulua aliantzaren oinarria da: laguntza militar automatikoa bermatzen du, estatu kideetako bati beste estatu batek erasotzen badio.

1949

Armamentu-karrera

1945ean Estatu Batuek bakarrik garatu izan zuten bonba atomikoa. 1945eko abuztuan arma hau erabili zen lehen eta azken aldiz, hain zuzen ere, Japoniako hirosima eta Nagasaki hirietan. Bestalde, 1949an lehen aldiz sobietarrek arma nuklear bat probatu zuten. Une hori aurrera, bi potentziek karrera armamentista amaigabeari ekin zioten, arerioa baino arma hobek eta ugariago izateko. Gerra Hotzaren aldi osoan zehar gerra nuklear baten arriskua egon zen.





GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Testuak



1950-1953

Koreako Gerra

Koreako Gerra Ipar eta Hego Korearen arteko gatazka armatua izan zen. 1950eko uztailaren 25ean hasi eta 1953ko uztailaren 27an amaitu zen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Estatu Batuek eta SESBek bi lurraldetan banatu zuten Koreako penintsula. Iparralde komunistaren eraginpean geratu zen eta hegoaldeak kapitalismoa bereganatu zuen. 1950ean Ipar Korea hegoalderako inbasioa hasi zuen. AEB gatazkara batu zen Hego Korea babestuz. SESBek eta Txinak, berriz, babes eman zioten Ipar Koreari. Dena den, bi indar militarretako bat ere ez zen gai izan nagusitzeko, hau dela eta, hasi ziren bake-negoiazioak. Korea, azkenean, 38. paraleloan zegoen mugak zatitu zuen, gaur egun arte.

1955

Varsoviako Ituna

Adiskidetasun, Lankidetzeta eta Elkar Laguntzaren Ituna, edo Varsoviako Ituna Europako ekialdeko herrialde komunistek sinatutako ituna izan zen. 1955ean sinatu zen eta 1991n ezerezean geratu zen. SESBek egindako ituna da, eta herrialde horien lankidetzeta militarra jasotzen du. NATOren Itunari aurre egitea zuen helburu nagusi.

1955-1972

Espazioko lasterketa

Espazio-lasterketa Ameriketako Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren arteko lehia izan zen, espazioa konkistatzeko. Gerra Hotza garaian bi herrialdeen arteko lehia teknologikoaren ardatz nagusietako bat izan zen. Ez aplikazio militarrengatik bakarrik, baita iritzi publikoan zuen eraginagatik ere. Bere lorpen nagusiak kanpoko espazioa satelite artifizialen bidez esploratzea izan zen eta gizakiak espaziora bidaltzea. Sobietar Batasunak 1961ean Vostok 1 espazio-ontzia jaurti zuen, Juri Gagarin astronauta barruan zuela. Juri Gagarin sobietar kosmonauta espaziora bidaiatzen zuen lehen pertsona izan zen. Ondoren, 1963an Valentina Terexkova lehen emakume astronauta bidali zuten espaziora. 1969an Estatu Batuek Apolo 11 espazio-ontzia ilargiratzea lortu zuten eta Neil Armstrong izan zen ilargian oinez ibili zen lehen pertsona.

1955-1975

Vietnamgo Gerra

Ipar Vietnam-go gobernu komunistaren eta Hego Vietnam-go gobernu kapitalistaren arteko gatazka izan zen. Ipar Vietnamgo gobernu komunistaren pean bi lurraldeak bateratzeko aukera zegoen. Aukera horrek SESBaren eta Txinaren laguntza zuen, baita hegoaldean jarduten zuen gerrillarena ere (Vietkong). Testuinguru horretan, Estatu Batuek Hego Vietnamgo defentsaren alde armak eta militar estatubatuarrek bidali zituen. Hala ere, Estatu Batuek gerra galdu zuten eta 1975ean erretiratu ziren. 1976an Vietnam gobernu komunistaren menpe bateratu zen. Hau domino jolasaren teoriaren adibide ona da, Estatu Batuek Asian komunismoaren hedapena saihesteko esku hartzea erabakia baitzuten.





GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Testuak



1956

Hungariako matxinada

Hungariako Iraultza Sobietar Batasunaren menderatzearen eta erregimen komunista ezartzearen aurkako herri-matxinada izan zen. Budapesten hasi eta Hungaria osora zabaldu ziren protesta herrikoï batzuk izan ziren. Urrian behin-behineko gobernu bat osatzea lortu zen, hauteskunde askeak eta Varsoviako ituna erretiratzea promes egin zuena. Hala ere, SESBk uste zuen matxinada honek bere botere eta ideologiaren hedapena mehatxatzen zuela eta tropak bidali zituen Hungariara. Hilabete baino gutxiagoan iraultza erreprimetua izan zen eta bere buruzagiak exekutatuak izan ziren SESBren aginduz.

1956

Suezko kanalaren krisia

Suezko kanala Egipton dagoen itsas kanal artifizial bat da, Itsaso Gorria eta Mediterraneo itsasoa lotzen dituena. Funtsezkoa da mendebaldeko herrialdeen petrolio-hornidurarako. Kanala Suezko Kanalaren Konpainiak kudeatzen zuen, inbertitzaile britainiar eta frantziarren esku zegoenak. Garai honetan, Egiptok dirua behar zuen Asuango presa eraikitzeko, baina AEBk eta Erresuma Batuak ukatu egin zioten, errepresalia gisa, Egiptoko gobernu SESBera hurbildu zelako. Testuinguru honetan, Egiptoko presidente Gamal Abdel Nasserrek kanala nazionalizatzea erabakitzen du. Erresuma Batuak, Frantziak eta Israelek berehala erasotzen diote Egiptori. Hala ere, nazioarteko komunitateak eraso hori gaitzetsi zuen eta AEBk gatazka amaitzeko presioa egin zuen. Azkenean, herrialde inbaditzaileak erretiratu egin ziren eta Nasser mundu arabiarreko lider nagusietako bat bihurtu zen.

1961-1989

Berlingo harresia

1949 eta 1961 artean, ia 3 milioi lagunek utzi zuten Alemania ekialdea mendebaldera pasatzeko, horietako asko gazte profesionalak ziren. Egoerarekin kezkatuta, sobietarrek 46 kilometroko alanbre-hesi bat jarri zuten Berlingo ekialdea eta mendebaldea banatzen zituen. Denborarekin, 1961ean, alanbre-hesia hormigoizko horma bihurtu zen, eta Gerra Hotzeko bi bloketako banaketaren sinbolo bihurtu zen.

1962

Kubako misilen krisia

Kubako iraultzaren ondoren, Fidel Castrok Estatu Batuetako enpresak nazionalizatu zituen eta SESBekin harreman komertzialak izaten hasi zen. Estatu Batuak Kuba inbaditzen saiatu ziren 1961ean, baina garaitua izan zen. 1962an, Estatu Batuek bazekiten misil nuklearren base batzuk eraiki zirela Kuban, eta sobietarren ontziek misil nuklearrak zeramatzatela. Estatu Batuek itsas blokeoa ezarri zioten Kubari, eta hainbat egunetako tentsioaren ondoren, ontzi sobietarrek buelta eman zuten. SESBek Kuban eta Estatu Batuek Turkian base nuklearrak kentzea hitzartu zen. Krisi hau bi blokeen arteko gerra nuklearraren etengabeko arriskuaren adibidea da.





GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Testuak



1968

Arma nuklearrak ez ugaltzeko ituna

Gerra Hotzean, mundua arma nuklearrekin eraso mehatxupear bizi izan zen. Egoera horren aurrean, mundu mailan ahalegin handia egin zen arma nuklearren ugaritzea sahiesteko eta armagabetzea sustatzeko, baita energia nuklearraren helburu baketsuetarako bultzatzeko ere. Azkenik, 191 herrialdek sinatu duten Arma nuklearrak ez ugaltzeko ituna sortu zen. Bost Estaturi soilik onartu zitzairen arma nuklearrak edukitzea: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Sobietar Batasuna eta Txinako Herri Errepublikak, gainerako herrialdeek arma nuklearrak ez egiteko edo eskuratzeko konpromisoa hartu zuten.

1968

Txekoslovakiaren inbasioa

1968an Txekoslovakiak irekiera prozesu bat hasi zuen. Gobernuak proposatzen ditu zentsura lasaitzea, polizia sekretuaren jarduerak mugatzea eta alderdi anitzeko gobernuan parte hartzeko aukera ematea. Liberalizazio horri erantzunez, Varsoviako Ituneko herrialdeek (SESb, Hungaria, Polonia eta Bulgaria) Txekoslovakia inbaditu zuten. Liberalizazio saiakera guztiak bertan behera geratu ziren eta armada sobietarra 1991ra arte mantendu zen herrialdean.

1979-1989

Afganistango inbasioa

1979an, Sobietar Batasunak Afganistan inbaditu zuen, gobernu komunista eusteko eta SESben aldeko erregimen bat sendotzeko. Honek Gerra Hotzeko tentsioa areagotu zuen, izan ere, AEBek eta Mendebaldeko aliatuek oposizioan zeuden Mujahidinen aldeko matxinatuak babestu baitzituzten armekin eta diruarekin. Gerrak iraun zuten 10 urteetan sobietarrek erresistentzia gogorra topatu zuten mendialdean borrokatzen zuten Mujahidinen gerlari islamisten eskutik. AEBek Pakistanen eta Saudi Arabiaren bidez lagundu zieten. Mikhail Gorbaxoven erreformen ondorioz, SESb Afganistandik ateratzeko prozesua hasi zen. 1989an, sobietar tropak erretiratu ziren, porrot militar eta politiko handia jasanez.

1983-1989

Galaxietako gerra

Star Wars zinemako saga eta fenomenoak izateaz gain, Gerra Hotza garaiko estrategia militar baten izena ere bada. Garaiko AEBko presidentek, Ronald Reaganek, misil nuklearrak geldiarazteko espazioan oinarritutako defentsa-sistema bat proposatu zuen eta nazioarteko prentsak "Star Wars" (Galaxietako Gerra) deitu zion plan honi. Horren aurrean Sobietar Batasunak mehatxu larritzat jo zuen eta arma nuklearren oreka hautsi zezakeela esan zuen, bi blokeen arteko tentsioa areagotuz.





GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Testuak



1989-...

Berlingo Harresiaren erorketa eta iraultza demokratikoa Ekialdeko herrialdeetan

1989an Ekialdeko Europan aldaketa handiak izan ziren, horien artean garrantzitsuenetakoa Berlingo Harresiaren erorketa izan zen. 1989ko azaroaren 9an, Alemaniako Errepublika Demokratikoak (Ekialdeko Alemania) muga ireki zuen, eta horrek Berlingo Harresiaren erorketa eragin zuen. Hori ekintza sinboliko handia izan zen, sistema komunistaren gainbehera hasi zela irudikatzen baitzuen. Eta Gerra Hotzaren bukaera. Harresiaren erorketak ez zuen soilik bi Alemaniak berriz batzea ekarri, baita Europan askatasunaren eta itxaropenaren haize berriak zabaltzea ere.

Euskal Herria eta Gerra hotza

Euskaldunek ere parte hartu zuten Gerra Hotzean, batez ere Informaziorako Euskal Zerbitzuaren bidez, hau da, Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzak sortu zuen espioitza agentzia bidez. Erbestean zeuden euskaldunek, aliatuei lagundu zien, Eusko Jaurlaritza konbentzituta baitzegoen faxismoaren porrotak Francoren porrota ere ekarriko zuela. Hala ere, Bigarren Mundu Gerraren ondoren lehentasuna komunismoarekiko konfrontazioa izan zen. Dena den, amerikarren eta Euskal Informazio Zerbitzuaren arteko espioitza-harremana Gerra Hotzaren garaian mantendu zen. Euskaldunek komunismoaren porrotak estatubatuarrek Francori ematen zioten babesarekin amaituko zuela espero zuten. Zoritxarrez, hori ez zen inoiz gertatu, eta horren ordez 1959an Eisenhower presidenteak Espainiara egindako bisita ofizialean, erregimen frankistari babesia eman zion.

Espioitza agentzei dagokienez, aipatu izan den izenetako bat José Félix de Lequerica da, Eusko Jaurlaritzako inteligentzia-sarearen parte izan zena. Bigarren Mundu Gerran eta Gerrako Hotzean aliatuekin harremanetan egon zen, nahiz eta bere parte-hartzeari buruzko informazioa murrizta izan.





GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Glosategia



Arma nuklear. Arma nuklear erreakzio nuklearretan oinarritutako potentzia handiko gailu leherkor bat da. Arma nuklearrek izugarri hondamenezko kalteak eragin ditzakete leherketa bakar batean. Gainera kutsadura erradioaktiboak ingurunean eta giza osasunean eragin iraunkorra izan dezake.

Domino jolasaren teoria. Dominoaren teoria nazioarteko politikari buruzko teoria bat da, zeinaren arabera, herrialde bat sistema politiko jakin batean sartzen bada, bere eremuko beste batzuk ideologia horretara eramango lituzkeen. Ikuspen hori nabarmena izan zen Gerra Hotzean. Ameriketako Estatu Batuek munduko hainbat lekutan egindako esku-hartzea justifikatzeko erabili zuten, herrialde batean komunismoa hedatzeak inguruko nazioak erakar zitzakeela uste baitzuten.

Fidel Alejandro Castro Ruz (1926-2016). Ideologia marxistako politikari kubatarra izan zen. Fulgencio Batistaren diktadura boteretik kendu zuen Kubako Iraultzaren buru izan zen. Bere herrialdean boterea ia 50 urtez erabili zuen, beraz, diktadorea da. Bere agintaldian, Kuba ideologia marxista-leninistako estatu sozialista bihurtu zen, Kubako Alderdi Komunistaren agindupean.

Harry S. Truman (1884-1972). Estatu Batuetako politikaria izan zen. Estatu Batuetako lehendakaria izan zen 1945-1953 bitartean. 1944an Rooseveltten lehendakariordea zen, Roosevelt lehendakaria hil zenean, 1945eko apirilean, lehendakaritza eskuratu zuen. 1948an, lehendakari hautatu zuten berriro. Bere agintaldian AEBetako nazioarteko politikaren oinarriak ezarri ziren bloke komunistari aurre egiteko.

Juri Gagarin. Sobietar kosmonauta edo astronauta bat izan zen. 1961ean, espaziora atera zen lehen gizakia izan zen. Gargarinen hegaldi ospetsua Vostok 1 espazio-ontzian izan zen. Gargarin ez zen inoiz espaziora itzuli. Beste kosmonauta batzuk entrenatu zituen, eta mundu osoan barna bidaiatu zuen.

Kapitalismoa. Kapitalismoa jabetza pribatua eta askatasun ekonomikoan oinarritutako sistema sozioekonomikoa da. Horrek esan nahi du ondasun eta zerbitzuen ekoizpena pertsonen esku dagoela, eta ez estatuaren esku. Oinarri hauek ditu:

- Enpresa-askatasuna: negozioak askatasunez kudeatzeko gaitasuna.
- Eskaintzari eta eskariari buruzko legea: ondasunak kontsumitzaileak eskatzen ditu, eta ekoizleek eskaintzen dituzte. Erlazio horren arabera, produktuak garestiagoak edo merkeagoak izango dira.
- Lehia askea: edozein enpresak eskaini ditzake bere produktuak mugarik gabe.

Bestalde, kapitalismoak klase sozialetan banatutako gizartea eraikitzen du, bere ahalmen ekonomikoaren arabera.





GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Glosategia



Komunismo. Klase sozialik gabeko gizarte baten eraketa sustatzen duen mugimendu politikoa da. Ekoizpen bideak jabetza komuneoak dira eta jabetza pribatua abolitzen da. Praktikan, herrialde komunistak alderdi bakar baten (Alderdi Komunista) gobernuan oinarritutako diktadurak dira, eta alderdi horretako buruzagiek botere osoz gobernatzen dute.

Mao Zedong (1893-1976). Politikaria, Txinako Alderdi Komunistako buruzagi nagusia eta Txinako Herri Errepublikaren sortzailea. Txinako agintari nagusia izan zen 1949tik hil zen arte. Diktadoretzat jotzen da, alderdi bakarreko erregimen autoritarioa ezarri zuelako. Maok marxismo-leninismoaren planteamenduak bereganatu zituen, baina Txinako gizartearen ezaugarrietan oinarritutako ñabardura propioekin.

Neil Alden Armstrong (1930-2012). Astronauta estatubatuarra izan zen. Ingeniari aeroespaziala, gerrako pilotua, probetako pilotua eta unibertsitateko irakaslea ere izan zen. Ilargia zapaldu zuen lehenengo gizaki lurtarra izan zen, 1969ko uztailearen 21ean.

Satelite artifizial. Satelite artifiziala gizakiak egindako objektu bat da espaziora bidalia izan dena eta Lurraren edo beste planeta edota satelite inguruan orbitatzen dabilena. Haren helburua informazioa jasotzea eta transmititzea da. Objektu horiei satelite artifizial esaten zaie, satelite naturaletatik bereizteko, hala nola Ilargia.

Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB). Europa eta Asiako estatu burujabe sozialista izan zen, 1922an sortua eta 1991n desegina. 15 errepublika federatuk osatua zen: Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Errusia, Estonia, Georgia, Kaszakhstan, Kirgizistan, Letonia, Lituania, Moldavia, Tajikistan, Turkmenistan, Ukraina eta Uzbekistan. Errusia zen Batasuneko errepublika handiena, bai hedaduraren bai biztanle kopuruaren aldetik, eta politikoki eta ekonomikoki agintzen zuen.

Valentina Terexkova. Espaziora bidaiatu zuen lehen emakumea izan zen. Geroago, Sobietar Batasuneko eta Errusiako politikan ere parte hartze handia izan zuen. Bere ekarpenengatik, Terexkova Sobietar Batasuneko heroi izendatu zuten, eta bi aldiz jaso zuen Leninen Ordena izeneko saria.





GERRA HOTZA

MUNDU BAKARRA, BI BIDE

Baliabideak



- ARRIZABALAGA, Unai. “Gerra Hotza”. In : *Genially* [linean]. Eskuragarri: <https://view.genially.com/608bc00acb20580dbb1bfb64/interactive-content-linea-cronologica> [kontsulta: 2024/09/01]
- BALTASAR, Ibai. Greziako Gerra Zibila. In *Prezi.com* [linean]. Eskuragarri: <https://prezi.com/p/g8cfyxfu0fkr/greziako-gerra-zibila/> [kontsulta: 2024/09/01]
- “Berlingo blokeoa”. In: *Prezi.com* [linean]. Eskuragarri: <https://prezi.com/z3mp7f4immwn/berlingo-blokeoa/> [kontsulta: 2024/09/01]
- “Berlingo blokeoa”. In: *Google Arts&Culture*. [linean]. Eskuragarri: <https://artsandculture.google.com/entity/m01bj62?hl=eu> [kontsulta: 2024/09/01]
- “Euskaldunak eta Gerra Hotza”. In *EITB* [linean]. Eskuragarri: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/dokumentalak/euskal-espioitza/euskaldunak-eta-gerra-hotza/oso/740/19671/> [kontsulta: 2024/09/01].
- GALLASTEGI JUARISTI, Martin. “Gerra Hotza”. In *Prezi* [linean]. Eskuragarri: <https://prezi.com/p/bswhwljzrqz/gerra-hotza/> [kontsulta: 2024/09/01].
- “Gerra Hotza”. In: *hiru.es* [linean]. Eskuragarri: <https://www.hiru.eus/eu/historia/la-guerra-fria> [kontsulta: 2024/09/01]
- “Gerra Hotza”. In: *Gizapedia*. [linean]. Eskuragarri: <https://gizapedia.org/gerra-hotza-historia> [kontsulta: 2024/09/01]
- Gerra Hotza. In: *Youtube* [linean]. Eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=u2WElr7ku3M> [kontsulta: 2024/09/01]
- “Gerra hotza”. In: *timetoast.com* [linean]. Eskuragarri: <https://www.timetoast.com/timelines/gerra-hotza-a0bcd479-5e11-4bf6-8620-79f038a8bd35> [kontsulta: 2024/09/01]
- Gerra hotza”. In: *Wikipedia*. Eskuragarri: https://eu.wikipedia.org/wiki/Gerra_Hotza [kontsulta: 2024/09/01]

